# Material educativo sobre turismo responsable

# Turismo arduratsuari buruzko hezkuntza materiala



Este catalogo pretende, a través de diferentes materiales, facilitar a la comunidad educativa un acercamiento al movimiento de Turismo Responsable y a sus experiencias, reflexiones y debates.
Estos han sido realizados en su mayoría por el Foro de Turismo Responsable.
Para descargarlos y ampliar informaciones al final de cada material estará el enlace correspondiente.

Katalogo honen bidez, hainbat material eskainita, hezkuntza-komunitatea Turismo Arduratsuaren mugimendura hurbildu nahi dugu, bai eta horren esperientzia, gogoeta eta eztabaidetara ere.
Turismo Arduratsuaren Foroak egin ditu material gehien-gehienak.
Deskargatzeko edo informazio gehiago lortzeko esteka bat dago material bakoitzaren bukaeran.

alter nativas
iniciativas interculturales

foro turismo responsable

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

# MATERIALES EDUCATIVOS - HEZKUNTZA MATERIALAK

## Turismo responsable: propuesta didáctica para las escuelas

Tiene como objetivo principal formar a viajeros conscientes y sensibilizados. Las actividades didácticas que lo conforman son juegos de rol que quieren informar a la ciudadanía de su responsabilidad. El turismo no es una actividad innócua: dependiendo de la manera de viajar y del comportamiento del viajero, la población local y su medioambiente pueden verse afectados positiva o negativamente. La unidad didáctica va dirigida a jóvenes de entre 15 y 19 años, y si bien se produjo para la educación formal, igualmente puede ser utilizada en el ámbito extraescolar.

Turismo responsable: propuesta didáctica para las escuelas es la versión en castellano de "Viaggiare a passo leggero" (Torino, 2002) de Roberto Varone, publicado por la ONG italiana CISV. La traducción es de Paola Sarti, de ACSUD-Las Segovias.

El autor: Roberto Varone es licenciado en Física por la Universidad de Torino. Desde 1999 coordina el área de Turismo Responsable de la ONG italiana CISV. Ha publicado diversos trabajos sobre este tema, especialmente en el ámbito de la Educación para el Desarrollo.




## Turismo responsable: propuesta didáctica para las escuelas

Atalaren helburu nagusia bidaiarien prestakuntza da, kontzienteak eta sentikorrak izan daitezen. Hori osatzen duten jarduera didaktikoak rol-jokoak dira, herritarrei duten erantzukizunari buruzko informazioa eman nahi dietenak. Turismoa ez da kalterik ez duen jarduera bat: bidaiatzeko moduaren eta bidaiariaren jokamoldearen arabera, tokian tokiko herritarrek eta bertako ingurumenak eragin bat jasoko dute, positiboa edo negatiboa izan daitekeena. Unitate didaktikoa 15 eta 19 urte bitarteko gazteentzat da, eta ohiko hezkuntzan erabiltzeko sortu bazen ere, berdin-berdin erabil daiteke eskolaz kanpoko esparruan.

Turismo responsable: propuesta didáctica para las escuelas Roberto Varone egilearen "Viaggiare a passo leggero" (Torino, 2002) lanaren gaztelaniazko bertsioa da; jatorrizko lana Italiako CISV GKEak argitaratu zuen. ACSUD-Las Segovias erakundeko Paola Sartik egin zuen itzulpena.

Egilea: Roberto Varone Fisikako lizentziaduna da Torinoko Unibertsitatean. 1999tik Italiako CISV GKEaren Turismo Arduratsuaren atala koordinatzen du. Gai horri buruzko zenbait lan argitaratu ditu, bereziki Garapenerako Hezkuntzaren esparruan.

http://www.edualter.org/material/turisme/responsable.htm

## El turismo en el inicio del milenio. Una lectura crítica a tres voces




No hay industria legal que pueda exhibir un crecimiento más acelerado y exponencial en los últimos 60 años como el turismo. El turismo ha sido capaz, además, de sortear todo tipo de crisis. Incluso parece inmune a fenómenos de carácter estructural que le afectan directamente, como el fin del petróleo barato. Este rápido crecimiento y esta capacidad de enfrentar contextos económicamente desfavorables lo han envuelto en un halo mitológico que lo presenta como un eficaz motor del desarrollo. Pero cuando los mitos se enfrentan a la realidad, muchas veces se descubren simples quimeras.

## El turismo en el inicio del milenio. Una lectura crítica a tres voces

Ez dago legezko industria bat turismoak azken 60 urtean izandako hazkundea baino azkarragoa eta esponentzialagoa -erakutsi dezakeenik. Turismoak, gainera, mota guztietako krisiak gainditu ditu. Izan ere, antza inmunea da harengan eragin zuzena duten egiturazko fenomenoen aurrean ere, esaterako, petrolio merkearen bukaeraren aurrean. Hazkunde azkar hori eta ekonomikoki aurka dituen testuinguruei aurre egiteko gaitasuna direla-eta, halo mitologiko batez inguratua agertzen zaigu, garapenerako motor eraginkorra delako itxura hartuta. Baina mitoak eta errealitatea aurrez aurre jartzen direnean, maiz kimera hutsak uzten dira agerian.

## Turismo en Centroamérica, nuevo escenario de conflicto social




El presente informe analiza las características del modelo turístico centroamericano.
De forma crítica revisa las consecuencias que ha tenido su fuerte crecimiento en los últimos años, entre las que sobresale una creciente conflictividad asociada a múltiples causas: la resistencia de las comunidades a la desposesión de recursos naturales y territorios; la reacción de la sociedad civil y autoridades locales ante los abusos turísticoinmobiliarios; la contraposición de intereses empresariales; la presión por la adecuación del marco normativo regulador de las políticas de turismo; y finalmente, la reacción de los trabajadores ante la precariedad de sus condiciones laborales.

## Turismo en Centroamérica, nuevo escenario de conflicto social

Txosten horrek Erdialdeko Amerikako turismo-ereduaren ezaugarriak aztertzen ditu.
Modu kritiko batez, azken urteotan izandako hazkunde handiaren ondorioak aztertzen ditu; horien artean nagusitzen da gero eta gatazka gehiago izatea, hainbat arrazoiri lotuta: komunitateen erresisten-tzia natura-baliabideen eta lurraldeen jabetza galtzearen aurrean; gizarte zibilaren eta tokiko agintarien erreakzioa turismoaren arloko higiezinei lotutako gehiegikerien aurrean; enpresa-interesak kontrajartze-a; turismo-politikak arautzen dituen araudi-esparrua egokitzeko presioa; eta, azkenik, langileen erreakzioa lan baldintza kaskarren aurrean.

# SISTEMATIZACIONES - SISTEMATIZAZIOAK

## Construyendo resistencias: Experiencias de turismo local

Este libro supone el inicio de un proceso de recopilación y sistematización de experiencias turísticas sostenibles, gestionadas por las poblaciones autóctonas y que defienden un modelo de sociedad más justa, equitativa y sostenible.

Estas experiencias se desarrollan como alternativas desde la economía social y solidaria, en el ámbito del turismo. Persiguen el apoyo a las comunidades locales, así como la promoción de una conciencia crítica entre la ciudadanía en torno al modelo turístico predominante de masas.




Dos de las propuestas sistematizadas en esta publicación se centran en experiencias de Turismo Rural Comunitario en Nicaragua y Ecuador. La tercera gira en torno a una propuesta de turismo alternativo en Palestina, un territorio asolado por más de medio siglo de ocupación y apartheid israelí.

En todos los casos, se trata de la construcción de alternativas Norte-Sur que pretenden convertirse en una contribución al desarrollo social y económico de las poblaciones locales, promoviendo la creación de una “conciencia turística” en nuestras sociedades y de un marco de intercambios de servicios turísticos sostenibles y equitativos.

## Construyendo resistencias: Experiencias de turismo local

Liburua turismo-esperientzia iraunkorrak biltzeko eta sistematizatzeko prozesu baten hasiera da; bertako herritarrek kudeatzen dituzte esperientzia horiek, gizarte justuago, bidezkoago eta iraunkorragoa lantzen duen eredu bat defendatuta.

Esperientzia horiek alternatiba gisa garatzen dira ekonomia sozial eta solidariotik, turismoaren arloan. Tokian tokiko komunitateen aldeko lana bilatzen dute, eta, halaber, herritarren kontzientzia kritikoa lantzen dute gaur egun nagusi den masa-turismoaren inguruan.

Argitalpen horretan sistematizatutako proposamenetako bi Nikaraguan eta Ekuadorren izandako landa-turismo komunitarioaren esperientziak dira. Hirugarrena Palestinan egindako turismo alternatibo baten proposamen bati buruzkoa da; lurraldeak mende erditik gora darama suntsituta Israelen okupazio eta apartheidaren ondorioz.

Kasu guztietan Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko alternatibak eraiki nahi dira, tokiko herritarren garapen sozial eta ekonomikoari bultzatzeari begira; horrela, gure gizartean “kontzientzia turistiko" bat eraikitzen da, baita turismo-zerbitzu iraunkor eta bidezkoak trukatzeko esparru bat ere.

http://www.foroturismoresponsable.org/index.php?option=com_content&view=category&layout=blog&id=27&Itemid=31

## JUEGOS - JOKOAK

### Un resort en Dubinda, una comunidad de pescadores

Objetivos del juego
El balance de las consecuencias del desarrollo turístico no parece haber sido muy positivo para una parte importante de las poblaciones locales, así como para el medio ambiente: desestructuración de los sectores económicos preexistentes, enajenación de recursos naturales, concentración de la riqueza, aumento de las diferencias sociales, etc. Un resort en Dubinda, una comunidad de pescadores es un juego de situación que pretende dar a conocer algunos de los riesgos que para las sociedades campesinas puede conllevar el surgimiento de la actividad turística con capital transnacional.

### Un resort en Dubinda, una comunidad de pescadores

Jokoaren helburuak.
Antza, turismo-garapenaren ondorioen balantzea ez da oso positiboa izan tokiko herritarren zati handi batentzat, ezta ingurumenarentzat ere: aurretik zeuden sektore ekonomikoen suntsipena, natura-baliabideak besterentzea, aberastasunaren pilaketa, desberdintasun sozialak handitzea, eta abar. Un resort en Dubinda, una comunidad de pescadores egoera-joko bat da, kapital transnazionalak bultzatutako turismo-jardueraren sorrerak bertako komunitateei ekar liezazkien arriskuetako batzuen berri eman nahi duena.




http://www.foroturismoresponsable.org/index.php?option=com_content&view=article&id=60&Itemid=52&lang=es

# VÍDEOS DOCUMENTALES - BIDEO-DOKUMENTALAK

## Colección “Impactos del turismo en los países del sur y turismo rural comunitario”

Una producción de Fundación Luciérnaga con el apoyo de Acción por un Turismo Responsable-ATR, ACASC, ACCD y Progressio.
Editada por el Foro de Turismo Responsable, con el apoyo de la AECID.
La plataforma Foro de Turismo Responsable, formada por varias ONGD del Estado Español, entre elas ATR, acaba de editar en España la colección de documentales que produjo la Fundación Luciérnaga de Nicaragua entre 2004 y 2009 con el nombre de *Turismos* en un álbum de dos DVD.
El primero trata de los impactos del turismo en los países del sur, y consta de los siguientes documentales: Condiciones laborales del turismo (2009), Turismo Residencial (2009), Sol y Sombras (2008), y la grabación de la obra de teatro campesino Pedro, Juanita y el Hotel de Mr. Hai (2006).
El segundo se centra en las posibilidades del Turismo Rural Comunitario a favor de las economías campesinas, y contiene los documentales: Turismos (2004), Finca Magdalena (2006), La finca de los Cerrato (2006) y Turismo Rural Comunitario (2006).
El álbum contiene material de apoyo elaborado por Ernest Cañada.




## “Impactos del turismo en los países del Sur y Turismo Rural Comunitario” bilduma

Luciérnaga fundazioaren ekoizpena da, Acción por un Turismo Responsable-ATR, ACASC, ACCD eta Progressio entitateen laguntzarekin.
Turismo Arduratsuaren Foroak argitaratua da, AECID entitatearen laguntzarekin.
Turismo Arduratsuaren Foroa plataformak –estatu espainiarreko zenbait GGKEk eratua da, haien artean ATR dagoela–, Nikaraguako Luciérnaga fundazioak 2004tik 2009ra Turismos izenburuarekin argitaratu zituen dokumentalen bilduma argitaratu berri du, bi DVDko album batean.
Lehenbizikoak turismoak Hegoaldeko herrialdeetan izandako eraginak jorratzen ditu, honako dokumental hauek bilduta: Condiciones laborales del turismo (2009), Turismo Residencial (2009), Sol y Sombras (2008), eta Pedro, Juanita y el Hotel de Mr. Hai (2006) nekazari-antzezlanaren grabazioa.
Bigarrena Landa-turismo Komunitarioaren aukerak aztertzen ditu, nekazaritza-ekonomiaren aldeko lanari begira, eta honako dokumental hauek biltzen ditu: Turismos (2004), Finca Magdalena (2006), La finca de los Cerrato (2006) eta Turismo Rural Comunitario (2006).
Albumak laguntza-materiala du, Ernest Cañadak egina.

## DVD 1

### Condiciones laborales del turismo

· País: Nicaragua.
· Año: 2009.
· Duración: 10 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nikaragua.
· Urtea: 2009.
· Iraupena: 10 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.

### Turismo residencial

· País: Nicaragua.
· Año: 2009.
· Duración: 11 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nikaragua.
· Urtea: 2009.
· Iraupena: 11 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.

### Sol y sombras

· País: Nicaragua.
· Año: 2008.
· Duración: 35 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nicaragua.
· Urtea: 2008.
· Iraupena: 35 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.

### Pedro, Juanita y el Hotel de Mr. Hai

· País: Nicaragua.
· Año: 2006.
· Duración: 15 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nikaragua.
· Urtea: 2006.
· Iraupena: 15 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.

## DVD 2

### Turismos

· País: Nicaragua.
· Año: 2004.
· Duración: 23 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nikaragua.
· Urtea: 2004.
· Iraupena: 23 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.

### Finca Magdalena

· País: Nicaragua.
· Año: 2006
· Duración: 18 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nikaragua.
· Urtea: 2006.
· Iraupena: 18 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.

### La finca de los Cerrato

· País: Nicaragua.
· Año: 2006.
· Duración: 13 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nikaragua.
· Urtea: 2006.
· Iraupena: 13 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.

### Turismo rural comunitario

· País: Nicaragua.
· Año: 2006.
· Duración: 23 min.
· Idioma: Castellano.

· Estatua: Nikaragua.
· Urtea: 2006.
· Iraupena: 23 min.
· Hizkuntza: Gaztelaniaz.











Para consultar los videos, solicitar información en turismoresponsable@nativas.org

Bideoak kontsultatzeko, eskatu informazioa turismoresponsable@nativas.org